

# Iratxoen eta trollen artean

Cecilia Andersson

1907an, John Bauer artista suediarrek, bere lehen ilustrazioa egin zuen Helena Nyblomek idatzi ipuin labur batentzako. Kolaborazio hori, Gabonetako Anuarioan argitaratua izan zen *Among Elves and Trolls* izenburupean. Bauerrek, Nyblomen ipuin laburrak ilustratzen jarraitu zuen, eta beraz, lehen esperientzia honen ostean, hamarkada batez izan ziren elkarrekin lanean kolaborazio arrakastatsu batetan. Istorio horietako batek, *The Swan Suit* (1908), zera kontatzen du, nola printzesa batek zisne bihurtzeko ahalmena eskaintzen dion jantzia galtzen duen. Ilustrazioan, printzesa agertzen da begiak itxita eta urrunean hiru zisne hegagenez.

Suedian, John Bauerren ilustrazioak, Erromantizismoaren bertso gisa hautematen dira. Bauer, sobrenaturalaz mintzo da mito eta melankoliaz baliatuz. Bere imajinarioak, mota guzietako izaki fantastikoez hornitu basoak agertu zituen. Bereziki, izakiatan ipini zuen arreta, eta basoak ilun eta detailerik gabe agertzen ziren.

Bauerren lanak, European zehar gauzatzen ari ziren mugimendu artistikoetara lotu ziren. Une horretan, Arts & Crafts Iglateran, Art Nouveau Frantzia, Jugendstil Alemanian, Sezesia Vienan, Style Moderne Rusian, Modernia Espainian guztiak Erromantizismo, Simbolismo eta Prerrafaelisten revival gotikoaren influentziapen gauzatzen ziren. Nahiz mugimendu hauek gizartearen industrializazioaren erantzun gisa gauzatu, guztien arteko lotura eta erlazioa, naturari lotu ideia eta kontzeptuetan topatzen dugu.

Zisne jantziaren Nyblomen istorioa, naturarekiko lotura situas mintzo zaigu. Honek, pertsona bat animalia bilakatu ahal izateko posibilitatea agertzen digu. Guztia, jantzi baten jaztearen mugimendu simple batez.

Erdi Aroaz geroztik, animalien istoriek garrantzia handia izan zuten gizakien arteko eta beren buruarekiko erlazioan, animaliak, identifikazio prozesu baten parte izan ziren, eta beraz, gizakiak animalien dependentzia zuten bici ahal izateko. Era berean, animaliek garrantzia izan zuten arlom izpiritual eta mistikoan. Gizakiek animalien munduari buruzko ipuinak kontatzen zituzten moduak, mundua bera agertzen zuten, gerora jakin izan den moduan.

Mabi Revueltak Andoaingo Bastero Erakustaretoan burutu erakusketan, *My Favorite Dress of Nothing* izenburupean aurkeztu ditu piezak. Izenburuak, XX.mende hasierako beste artista bati egiten dio erreferentzia, Lewis Carrolli alegia, eta honek, haurrak argazkitzerakoan zuen jazki desiragarrienari. Nahiz Carrollekin desio eta fantasia mundua Bauerrenaz ezberdina izan, biek ere zentzugabeko sentimenduak sortarazi nahi izan zituzten Errealitateaz hitzeging ahal izateko. Kontestu honen baitan, bietaz hitzegitea aproposa da Revueltak erabiltzen dituen gaiak aztertzerakoan.

Har dezagun exenplu gisa *Rizos de Medusa* (2000) deritzan argazkia. Emakume biluzi bat agertzen du. Bere azalak toska dakarkigu gogora, zuria eta leuna. Albo batetara dago etzanda, eta hasiera batetan mihisea dirudien zerbaitetan dago bildua. Aurpegi zati bat izkutuan du eta begi bakarra agerian. Hare eta gehiago, gorputza biltzen duen belztasunaz gain, hatzamar bi agertzen dira. Gerturatu ahala, gorputzaren dimentsioak ikusgarriago gertatzen dira. Detaileak agertzen dira, iturri bi mantuaren gainean dira ikusgai, kapulu batetan dagoen izakia bat dirudi, osoki luma beltzez estalia. Hatzamarrak, gertuago erreparatuz gero, esmalte gorritz margotuak dirudite. Bera lasai ageri da bere babesa den kabi horretan. Begietako bat lumaz estalia ageri da, berak, Medusaren botereen erdiak baino ez ditu.

Revueltak, urteetan zehar, detailearekin zerikusi handia duen lana aurkeztu du. Detaileetan duen erabateko perfekzioak eta gauzatzeko prozesu abilek, behin betirako baiezkortasunak eraten dituzte. Ez dago prefabrikatua den ezer bere lanean. Materialeak konzienteki bilatu eta aukeratuak dira, azken lana ezinbesteko edertasunez agertu dadin.

Revueltak, metaforikoki erakartzen du ikuslea, bere lanarekin bat egin dezan. Halako kontuarekin bereizten dituen prozesuetan, bere lanaren elementuek zenbaitetan objektu ritualak ekartzen dizkitez gogora ikusleari, hain zuzen ere, motibuen objektibazio eta identifikaziorako eratuak izan direnak. Lehenago aipatu hatzamarren kasuan gertatzen den lez.

*Pearls* (2002) izenburupean berriagoa den pieza bat aurkezten du, keramika beltzean egin maniki baten bustoa lurrean dago ipinia eta forma borobil anitzek inguratzen dute. Bustoa da piezaren erdigunea, forma biribilak bustoarekin erlazionatzen dira. Bustoa aldiz osoa da, eta besteen aldean goimailakoa eta hauskorra da aldiberean. Aldiz, forma biribilek dinamikotasun handiagoa dute, lehertze eta sortze prozesu batetan baleude bezala. Guztien azalera dizdiratsuak elkarren arteko erreflexuak sortzen ditu modu berezi batez. Guztiek dute elkarren dependentzia baina bereziak agertzen dira. Konplementatu bai baina badirudi ez dutela elkarrekin komunikatzeko edo elkar laguntzeko ahalmenik.

Argazki, bideo edo eskultura bitatez, Revueltak konpromezua hartzen du erabiltzen duen medio bakoitzarekin. Hau da, medio bakoitzaren natura zehatzarekin hartzen du konpromezua. Bere lana, zehaztasun osoz mensaia goraiatuko duen moduan antolatu eta bilakatzen da. Esaterako, *Los Amantes Ilusorios* (2005) deritzan lanean, zeina Andoaingo erakusketan *Pearls* deritzan lanaren alboan agertzen den, 14 ardo kopa handikote altuera ezberdinetako pena biribiletan ipini ziren. Peanak azal koloreko moketaz estaliak eta ispiluz estaliak. Ardo kopa bakoitzak idatzi bat darama, hala nola: gau hau izan dadila, dantzari ikusi nahi zaitut, desio barnekoiena, gorroto hilgarriena. Idazkiak gotiko estiloko hizkiez dira eginak, eta kopen neurriak, edari zehatz bat buruan izanik egin zirela adierazten du. Horietako bat oinarria apurtuta agertzearekin bat, dramatikotasuna sortzen da.

Gainerako piezekin apurtuaz, argazki bi ikusten ditugu. Negatiboak Brooklynen aurkitu zituen artistak, eta 70.hamarkadan gauzatu zituen argazkilari anonimo batek. Argazkiek dantzariak agertzen dituzte, bada sabel dantzaria da, bestea muntai bat da, non dantzari bera lau aldiz agertzen den olatu mugimendu batetan. Irudi biek mamuak dirudite, eta argazki biak goriak dira. Baina erakusketa honetan mantentzen dituena, beste lanek elkar osatzeko eta istoria beste modu batetan kontatzeko duten modu berezia da.

Ipuin eta mitoek garrantzi handia izaten jarraitzen dute kulturen arteko erlazioak finkatzekoan. Biek ere, nortzu garen erakusten digute, eta bizi ditugun lekuez berri ematen digute. Alegia, mitoak nahiz ipuinak, bizi dugun errealitatea komentatzeko modu efektiboak izaten jarraitzen dute. Revueltak bere lanean, eszenarioak sortzen ditu eta garaikideak diren ipuin zenbaiten sentimenduak sortarazten ditu.

